



PROKOKOIA, UPV/EHUko EBALUAZIO PROBETAN ETA LAN AKADEMIKOETAN JOKABIDE MAKUR ETA IRUZURREZKOAK ERAGOZTEARI ETA ETIKA AKADEMIKOARI BURUZKOA

Protokolo honen helburua da jarraibide esplizituak ezartzea bizitza akademikoan etikaz eta zintzotasunez jokatzeko, eta, era berean, eragozte eta zigortzea batzuetan UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan egiten diren iruzur, kopia edo plagioak.

Era berean, jardun akademiko etikorako eta goian aipatutako egoerak kudeatzeko jarraibideak ezartzen ditu unibertsitateko kide guztientzat. Protokoloa hainbat egoerari aplikatu behar zaie, besteak beste titulazioetako ikasketa planetako irakaskuntzari, unibertsitatera sartzeko probari edo titulazio batzuetan egin behar izaten diren sarrera proba espezifikoei.

Azken urteotan zalantzak sortu dira gai honen inguruan, aldezeak bere urteko txostenean (2016ko abendua-2017ko abendua) islatu zuen legez, eta haiexek argitzera dator protokoloa. Dokumentu hau prestatzeko, barne dokumentuez gain (aipatutako memoria, adibidez), estatu espainiarreko beste unibertsitate publiko batzuetan erabilitako beste batzuk ere baliatu ditugu, izaera juridiko eta zehaztasun maila desberdinetakoak.

1. LEGE ESPARRUA

Unibertsitateak, ikasleak prestatzeko ardura duen aldetik, bere jardunaren eremu guztietan balio etikoak garatu eta bultzatzeko betebeharrak esplizitua dauka. Halaxe jasotzen du Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak (1791/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa), adierazten baitu unibertsitatea izan behar dela bertan bizi diren eta ikasten eta lan egiten dutenen prestakuntza osokorako espazioa, eta, hortaz, ikasleen eta unibertsitateko gainerako kideen jarduna zintzotasunak, egiazkotasunak, zorroztasunak, justiziak, eraginkortasunak, errespetuak eta erantzukizunak gidatu beharko dutela.

Estatutu horretan bertan esaten da unibertsitateko jarduerak baldintza egokiak sustatu behar dituela ikasleek:

- a) Autonomiaz lan egin dezaten eta euren erabakiak hartzeko eta horien arabera jarduteko gai izan daitezen;
- b) Erantzukizunez joko dezaten eta euren ekintzen ondorioak beren gain hartzeko prest egon daitezen;
- c) Zentzuz joko dezaten, euren onerako dena lortzeko gai izan daitezen eta hori lortzeko bidean besteekin bat egin dezaten;
- d) Justiziaren zentzua izan dezaten eta legeak ezaguturik, beste batzuekin dituzten desadostasunak arrazoiz, objektibotasunez eta inpartzialtasunez konpontzeko prest egon daitezen;
- e) Gaitasuna izan dezaten euren aukera eta erabakien ondorioek ukitutako pertsona guztiak euren erantzukizunaren eremuan sartzeko, bereziki euren interesak defendatzeko edo horien balioa agertzeko gaitasun gutxien dutenak.

Hala ikaskuntza-irakaskuntza nola ebaluazio prozesuak printzipio horien arabera bete behar dira, berebiziko garrantzia baitute ikasleen etika akademikoa eta prestakuntza osoa garatzeko, hau da, ikasleak beren ingurunean gertatzen denaz jabetzen eta

arduraten diren pertsonak izan daitezten, etengabeko aldaketetara egokitzeko gai direnak eta arazo berriei sormenean eta etikan oinarrituta erantzuteko gai direnak¹.

Irakaskuntza eta ikaskuntza etikoa eremu zabala eta aldabera dela jakinda ere, gaur egun badaude prozesu batzuk aparteko arreta eskatzen dutenak. Haietako bat ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa da, zehazki azterketa edo proba idatzietan eta lan akademikoetan egiten dena, hala irakasgaien barruan nola Gradu Amaierako Lanean (GRAL), Master Amaierako Lanean (MAL) eta doktorego tesietan. Aspaldiko arazoa da, baina gaur egun interes berezia hartu du. Izan ere, digitalizazioak informazioa transmititu eta gordetzeko sistemetara ekarritako aldaketen ondorioz, orain informazio multzo eskergak eskura daitezke edozein tokitatik eta leku guztietatik aldi berean.

Ikasleen ikaskuntza eta lana ebaluatzeko prozedura guztien xedea da haien ezagutzak eta errendimendu akademikoa egiaztatzea, besteak beste, jardun profesionalerako bidea emango dieten titulu ofizialak emateari begira. Unibertsitateen erantzukizuna da egiaztatzea ikasleei ematen dizkieten kalifikazioek benetan islatzen dutela ikasleen gaitasunen neurria. Ikasleen betebeharra da parte hartzen duten ebaluazio prozesuetan erantzukizunez jokatzeko eta objektiboak izatea, eta **UPV/EHUren ebaluazio-probetan edo dokumentu ofizialetan prozedura iruzurtiak erabiltzeari edo horietan laguntzeari uko egitea**².

Prozedura iruzurtien aipamen horrek behartzen gaitu haren esanguraren nondik norakoa ikertzera. Iruzur akademikoa da jokabide makur eta ez etiko bat, hainbat forma har ditzakeena: kopia lan tipikoa azterketa edo proba idatzi batean, testuak nonbaitetik hartzea eta egile eskubideak urratzea (plagioa edo ziberplagioa), identitate ordezpena, edo lan akademikoen sal-erosketa. Kasu guztion ezaugarri komuna, alde batera utzita larriagoak ala arinagoak diren, da ikasleak bere errendimenduaren frogatzat aurkezten duela berak zuzenean sortu ez duen produktu bat.

Azterketa edo proba idatzietan bi egoera dira eragotzi beharrekoak: identitate ordezpena eta kopiatzea. Biak ere jasota daude arautegian.

Alde batetik, identitate ordezpena eragozteko, esaten da **Ebaluazio-probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango die[la] identifikazioa bertaratutako ikasleei, eta horiek ikasle-txartela, nortasun-agiri nazionala, pasaporte, edo, halakorik ezean, ebaluatzailearen iritziz nahikoa den egiaztagiria erakutsi beharko diote[la]**³.

Bestalde, arautegian kopia kasu tipikoak ere jasotzen dira, **modus operandi**ak asko ugaritu badira ere.

Kontsultarako materialik gabe norberaren emaitzak hobetzeko ikaskide bati kopiatzetik edo harekin komunikatzetik harago, gaur egun gerta daiteke gailu mugikorrek

¹ UPV/EHUko Estatutuak (2011). https://www.ehu.es/documents/2007376/3869011/Estatutos_EHU.pdf/c15f4b39-6706-49a0-b0f2-2786d358fa29. IKD hezkuntza eredu (2011). <https://www.ehu.es/eu/web/sae-helaz/ikd-curriculum-garapena-oinarriak>.

² Unibertsitateko Ikasleen Estatutua, 13. 2. d) artikulua (2010/12/31ko BOE); UPV/EHUko Ikasleen Arautegia (2012/07/31ko EHAA).

³ Unibertsitateko Ikasleen Estatutua, 25. 7. artikulua (2010/12/31ko BOE); Graduako Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia, 11.2 artikulua (2017/03/13ko EHAA).



erabiltzea proba ebazteko behar den informazioa eskuratze aldera. Edozelan ere, horren ondorioak argi eta garbi jasota daude arautegian. Izan ere, ***Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio***⁴.

Lan akademikoei dagokienez, arauak egilearen eta originaltasunaren kontzeptuei erreparatzen die⁵. Graduaren eta masterren bukaeran ikasketa amaierako lana egin behar da, hau da, ***ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean***. Antzera gertatzen da doktoregoko ikasketa ofizialetan, non, haien arautegiaren 13. artikuluari jarraituz, doktoregaiek tesi bat aurkeztu eta defendatu behar duten ikasketen amaieran, hots, jakintzaren edozein eremutan egindako ikerlan original bat⁶.

Multzo honetako jokabide okerretatik plagioa da ohikoena eta irakasleak gehien kezkatzen dituenak. ***Euskaltzaindiaren Hiztegiak*** honela definitzen du plagioa: ***Besterenak diren obrak kopiatu edo imitazioa, norberak eginak balira bezala azaltzeko egiten dena***. Hau da, iruzur testual eta intelektuala da.

Gaur egungo unibertsitatean plagioak forma asko eta oso desberdinak har ditzake, eta horregatik beharrezkoa da nabardura batzuk egitea. Batetik, ohikoa izaten da graduaren lehen urteetako ikasleek lanetan istripuz edo gura barik egindako plagioak aurkitzea, normalean ezjakintasunagatik eta iturriak egokiro erabiltzeko trebezia faltagatik, edo are ideia konplexuak osatzeko zailtasuna izateagatik ere. Halako trebetasunak asmoz, esplizituki eta hasiera-hasieratik landu behar dira, ikasleek haien garrantziaz eta pisu larriaz jabetuz joan daitezten. «Hastapenetako» fase hori gainditzea ezinbestekoa da ikasleek uler dezaten zer den lan originala eta sormenezkoa, eta ahalegindu daitezten hori egiten, ezarritako jarraibideei eutsiz. Edozelan ere, GRALak, MALak eta doktorego tesiak bukaerako produktuak dira; horra heldzerako gura bariko plagioen arazoa konponduta egon behar da, eta unibertsitateak plagioak antzeman eta zigortzeko mekanismoak eduki behar ditu, besteak beste egile eskubideak babestuta daudelako bai jabetza intelektualaren Legean eta bai jabetza intelektualeko eskubideen titulartasunaren baitan.

Amaitzeko, kontuan hartu behar dugu 1954ko irailaren 8ko Dekretua, Hezkuntza Ministerio Nazionalaren menpeko Goi Mailako Irakaskuntzako eta Irakaskuntza Teknikoko Diziplina Arautegia onartzen duena, non zehazten diren arau haustetzat jotzen diren ekintzak eta ezar dakizkiekeen zigorrak. Arautegiak, eta urtez urte hura interpretatu duen jurisprudentziak, arau haustetzat jotzen ditu zenbait jokabide, zeinetara bildu daitezkeen azterketetan eta ebaluazio probetan egindako iruzurrak.

2. EBALUAZIO PROBA ETA PROZESUETAKO ETA LAN AKADEMIKOETAKO JOKABIDE MAKUR ETA IRUZURREZKOAK

⁴ Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasle Ebaluaziorako Arautegia, 11.3 artikulua (2017/03/13ko EHAA).

⁵ Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketa buruzkoa (2007ko urriaren 30eko BOE) eta gerorako eguneraketak, eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia (2015ko apirilaren 13ko EHAA).

⁶ 99/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituenak (2011ko otsailaren 10eko BOE).



Aipatutako legeriari jarraituz, UPV/EHUn honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkozkat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean:

- a. Lanak plagiitzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan.
- b. Banaka egin behar den ebaluazio proba batean ikaskideei kopiatzea edo haiei informazioa ematea.
- c. Azterketa batean edo ebaluazio proba batean beste ikasle bat ordezte, edo norbera beste inork ordeztu dezan onartzea eta adostea.
- d. Ikasgelan sartzea edo erabiltzea ebaluazio proba egin bitartean debekatua dagoen materiala.
- e. Proba egin aurretik galderak edo kasu praktikoak edo haien erantzunak iruzurrez lortzea, zeinahi baliabidez.
- f. Kalifikazioak edo haien aktak legez kontra manipulatzea edo aldatzea, zeinahi baliabidez.
- g. Azterketa edo proba batean uko egitea norbere burua identifikatzeari edo azterketa edo proba entregatzeari, irakasle arduradunak hala eskatzen dionean.
- h. Jardun akademiko eta haren ebaluazio prozesuak gobernatzen dituzten arauen kontrako beste edozein jokabide.

3. JOKABIDE MAKUR EDO IRUZURREZKOAK ERAGOZTEKO NEURRIAK

Hurren zehazten dira azterketa edo ebaluazio probetan eta lan akademikoetan plagioa, kopia edo iruzurra eragozteko zenbait neurri:

1. Arduradunek azaltzea lan akademikoen kalitatea definitzen duten irizpideak

Arduradun akademikoen eta irakasle taldearen eginbeharra da elkarrekin ahalegin berezia egitea jardun akademiko eta irakaskuntza izan dadin, zentzurik zabalenean, hots, aintzat hartuz pertsonenganako begirunea, berdintasunerako eta bereizkeriarik ezerako sentiberatasuna, ingurumenaren, hizkuntzen eta kulturen errespetua, ikerketa etikorako sentiberatasuna eta abar.

Zehazki, bermatu behar da ikasleak fakultatean sartzen direnetik bertatik hasten direla informazio iturriak egoki erabiltzen, eta ondo jabetzen direla kopiaren, plagioaren edo iruzur akademikoaren ondorio ez desiratuez.

Sentsibilizazio eta heziketa lan hori egingo dute bai irakasle taldeek eta bai irakaskuntza edo ebaluazio egitura espezifikagoek, adibidez Master eta Doktorego Eskolak, Sarbideko Zuzendaritzak edo gai honen inguruko prestakuntzaz arduratzen diren Bibliotekako langileek.

2. Zintzotasunez eta portaera etikoaz jokatzeko konpromisoaren adierazpena

Ikasle berriak UPV/EHUrak heldu bezain laster, arduradun akademikoek eta irakasle taldeek ezagutzera emango dizkiete azterketa, ebaluazio proba edo lan akademikoetako plagio, kopia edo iruzurren inguruan aplikatuko diren prozedura eta arauak. Era berean, ikasle bakoitzak sinatu behar du unibertsitatean dagoen bitartean prestutasun akademikoaz jokatzeko konpromisoa. Bertan argi eta garbi azalduko da zintzotasunaren eta etikaren garrantzia bizitza akademikoan, eta ikasleak hitzemango du unibertsitatean dagoen bitartean ez duela plagiorik egingo eta ez duela bestelako jokabide onartezinik izango.

3. Material, tresna eta baliabideen erabilerari buruzko informazioa

Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Behar izanez gero, proba egiteko unean izendatu ahal izango dira debekatutako materialak uzteko tokiak, ikasleen eskuetatik kanpoko.

Titulazioetako irakasgaietan, 2019/20 ikasturtetik aurrera, irakaskuntza gidetan behar bezala adierazi behar da, ahalik eta zehatzen eta argien, zein material, tresna eta baliabide —teknologikoak edo bestelakoak— onartuko diren ebaluazio probetan.

Era berean, unibertsitatera sartzeko proben edo titulazioetatik kanpoko bestelako proba espezifikoetan beren-beregi adieraziko da zein material, tresna edo baliabide onartuko diren proban.

4. Antzekotasuna detektatzeko tresna

Kalitatea eta izen ona gordetzeko, bai UPV/EHUrena eta bai unibertsitate honetan lan akademikoaren tutore eta zuzendari diren irakasle-ikertzaileen lanarena, eta haien lan pedagogikoa errazteari begira, unibertsitateak tresna bat jarriko du hala eskatzen duten irakasleen esku, aipu okerrak eta antzekotasunak edo bat etortzeak detektatzeko lan akademikoetan, GRALetan, MALetan eta doktorego tesietan.

UPV/EHUko langile baimenduek erabili ahal izango dute tresna informatikoa, lizentziarik gabe erabili daitezkeen software libreko tresna ugarietz gain.

Doktorego tesiekin nahitaezkoa izango da antzekotasunak detektatzeko tresna hori erabiltzea, haien originaltasuna bermatzeko beste neurri batzuen artean. Tesiaren zuzendariak aplikatuko dio, tesia gordailuan utzi aurretik betiere, eta Doktoregoko Ikasketak Kudeatzeko Arautegiari jarraituz.

MAL eta GRALen kasuan, zuzendarien eta epaimahaien esku egongo da, baina ikastegiekin ere ezarri ahal izango dute tresna hori beren ikasketetan erabiltzeko arautegi espezifiko bat.

4. USTEZKO IRUZUR, KOPIA EDO PLAGIOAREN AURREAN BETE BEHARREKO JARRAIBIDEAK

1. Ebaluazio proba batean

- Proban bertan iruzur, kopia edo plagioa antzematen bada, ikasgelan dagoen irakasleak azterketa eta kasuan kasuko materialak⁷, entregatzeko eskatuko dio ikasleari, eta gertaeraren berri jasoko du idatziz. Irakasgaiaren ardura duen irakasleak ikasleari jakinaraziko dio suspentso kalifikazioa (0.0) daukala ariketan.

Unibertsitatera sartzeko probetan edo titulazioetatik kanpoko bestelako proba espezifikoetan, epaimahaiko buruak jakinarazi behar da ikasleari suspentso

⁷ Ezin izango zaio inori tresna telefoniko, elektronikoa edo informatikoa pribaturik kendu, baina irakasleak jakitun jarriko du ikaslea ustez legez kanpo erabili duela gailua.



kalifikazioa (0.0) daukala, iruzurra, kopia edo plagioa egin duen gai edo proba jakin horretan.

Ikasleak erreklamazioa jarri ahal izango du erabaki horren kontra, horri buruzko arautegian zehaztutako prozedura betez.

- Proba bat zuzentzean agerikoa bada emaitzan eragin handia duen iruzur bat egin dela, baina hori proban bertan egiaztatu ezin izan bada —esaterako, ikusten bada ariketa edo proba batek berebiziko antza duela argitaratuta dagoen testu batekin edo beste ikaskideren baten ariketarekin—, suspentso kalifikazioa jarri ahal izango zaio, horretarako arrazoiak adieraziz.

- Irakasle arduradunaren ustez zantzu argiak badaude pentsatzeko ebaluazio proba baten edukiak edo erantzun zuzenak ezagutu direla eta zabaldu ahal izan direla probaren aurretik, ezin baditu garaiz aldatu galderak edo ariketak, bertan behera utzi beharko du proba, ebaluazio arautegiari jarraituz. Hori ez da aplikatuko ikasleek erantzunak ezagutzen badituzte ebaluazio proba hori lehenago egindako beste baten berdina delako.

- Gertaerak egiaztatzeko egin beharrekoak egin ostean, diziplina espedientea irekitzea eskatzen bada, dekanotzak edo zuzendaritzak unibertsitateko Idazkaritza Nagusira bidaliko du, ahalik eta lasterren, bere ustez larriak diren edo diziplinazko arau haustetzat edo delitutzat jo daitezkeen iruzur guztien informazioa.

2. Lan akademikoak zuzentzean

Lan akademiko bat zuzentzean irakasleari agerikoa iruditzen bazaio notan eragin nabarmena izango lukeen iruzurren bat egin dela, suspentsoa jarri ahal izango dio, behar bezala arrazoituta.

3. Gratu Amaierako Lana, Master Amaierako Lana edo doktorego tesia egitean edo aurkeztean

- Zuzendariak plagio zantzurik aurkitzen badu GRALean edo MALean, edo ikusten badu zorrotasun falta dagoela bibliografian autoreak aipatzerakoan, hala jakinarazi beharko dio ikasleari, akatsak edo desegokitasunak zuzendu ditzan lana aurkeztu aurretik.

GRALaren eta MALaren aurkezpenean plagiorik antzemanenez gero, epaimahaiak suspentso kalifikazioa (0,0) jarriko dio lanari.

Ikasleak erreklamazioa jarri ahal izango du epaimahaiaren erabakiaren kontra, horri buruzko arautegian zehaztutako prozedura betez.

- Zuzendariak plagio zantzurik aurkitzen badu doktorego tesian, edo ikusten badu zorrotasun falta dagoela bibliografian autoreak aipatzerakoan, hala jakinarazi beharko dio doktoregaiari, akatsak edo desegokitasunak zuzendu ditzan tesia gordailuan utzi aurretik.

Tesiaren aurkezpenean plagiorik antzemanenez gero, epaimahaiak ez-gai kalifikazioa jarriko dio doktoregaiari.



Doktoregaiak epaimahaiaren erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio UPV/EHUko errektoreari.

5. EBALUAZIO PROBETAN ETA LAN AKADEMIKOETAN JOKABIDE MAKUR EDO IRUZURREZKOA IZATEAREN ONDORIOAK

Goian azaldutako jokabide iruzurrezkoak dauzkatenek eta haien laguntzaile ezinbestekoek ondorio hauek pairatuko dituzte:

- Kalifikazioan: suspentsoa jasoko dute eta 0,0 puntuazioa. Salbuespenez, irakasle arduradunak beste kalifikazio bat ematea erabaki ahal izango du, arrazoiturik, baldin eta uste badu ustezko iruzurra edo debekatutako jokabidea arina edo garrantzi gutxikoa izan dela, eta ez duela eragin handiegirik izan probaren emaitzan.

- Diziplina espedientea: inguruko zirkunstantzien arabera, azaldutako jokabideak jo ahal izango dira diziplinazko arau hauste arintzat, ez hain larritzat edo larritzat, Diziplina Akademikoaren Arautegiko 5. artikulua arabera, eta diziplina espedientea irekitzea ekarri ahal izango dute. Errektorearen eskumena da zigorra ezartzea. Edozelan ere, proportzionaltasun printzipioari jarraituz, zigorra neurritzkoa izango da, eta arau hauste bakoitzaren inguruabarren arabera.

Arautegiak dioenez, arau hauste arina da *ordena edo diziplina akademikoan nahasmendua sor dezakeen edozein ekintza*, eta arau hauste larria da, *besteak beste, ikas bizitzako ekitaldietan identitatea ordeztzea, dokumentuak faltsutzea eta zintzotasun falta, delitu diren gainerakoez gain.*

Arautegian aurreikusitako zigorrak, kasu bakoitzaren zirkunstantzien arabera, honako hauek dira: arau hauste arinetarako, irakasgai baten edo gehiagoren matrikula galtzea; ikasturte horretan, edo aldi baterako, gai baten edo gehiagoren eskoletara joateko debekua; ohartarazpen publikoa edo pribatua; arau hauste larrietarako: unibertsitatetik aldi baterako edo betiko kanporatzea; azterketa egiteko debekua, irakasgai batzuetan edo guztietan, ohiko deialdian edo guztietan; edo bekak edo bestelako onurak galtzea, guztiak edo batzuk, betiko edo aldi baterako.

Zenbait iruzur bereziki larriak izan daitezke, eta delitu izatera heldu: adibidez, dokumentazioa faltsutzea, eginkizun publikoen usurpazioa eta abar. Kasu horietan unibertsitateak gertakariak salatuko ditu fiskaltzaren aurrean.